



Arrain saltzaileei omenaldia, iazko Amara Berriko karmenetan.

## Amara Berriko karmengo jaiek hiru hamarkadako parrandari eutsiko diote

Amara Berriko karmenek eta auzo elkarteak 30 urte betetzen dituzte aurten; urteurren borobila, ordea, urtero bezala ospatuko dute: Karmen eguneko tradizioak, danborrada jendetsua eta auto klasikoaren arteko barre algarak ez dira faltako, auzoko kaleetan barrena.

✎ Nagore Garmendia Artano  
 📷 Amara Berriko Auzo Elkarte

**D**onostiako auzo populatuenak badaki zer den festaz gozatzea, baina baita jai horiek aurrera ateratzeko lan egitea ere. Aurten, Amara Berriko Karmengo jaiek eta auzo elkarteak 30 urte betetzen dituzte.

Urteurren borobila eta berezia izateko asmoa bazuten ere, burokraziak eta denbora faltak plan

handienak zapuztu dizkiete. Hala ere, Nerea Albisu auzo elkarteko kideak argi utzi du: «Guk oso ondo pasatzen dugu eta, ezer berezirik prestatu ez dugun arren, une jakin batzuetan xanpaina aterako dugu, ziur!».

### Aire freskoa eta gaztea

Hiru hamarkadako bidearen on-

doren, egungo taldetxoak azken aldiz hartuko du jaien prestakuntza. Albisuk boluntariotzaren gaur egungo krisia azpimarratu du: jendea prest dago egunetan bertan «puntualki» laguntzeko, baina baimenak eskatzea, udaleko paperak mugitzea eta hilabeteetako konpromisoa hartzea zailagoa egiten zaie, bakoitzak bere lana eta istorioak dituelako.

Hala ere, etorkizuna ez dago kolokan. Auzoko gazte talde batekin hizketan ari dira jaiekin jarrai dezaten. Egungo antolatzaileak, baina, ez dira guztiz joango, albo batera pasatuko dira babeseta esperientzia eskaintzeko. «Urtetik urtera, gauzak hobek izan behar dira, eta uste dut behar dela aire fresko eta gazte pixka bat. Kalea gazteena da», azaldu du Albisuk, itxaropentsu.

### Arrain saltzaileei omenaldia

Jaien barruan jarduera kuttun eta xume bat badago, hori uztaillaren 16ko Karmen eguneko da. Goi-

zean goiz, trikitilariekin batera, antolatzaileak auzoko arrandegi guztietatik pasatzen dira. Pandemiaren ostean berreskuratutako tradizio honetan, lore sorta txiki bat oparitzen diete arraindegietako dendariei, urte osoan jasan beharreko «eskeak» eskertzeko eta haien lana aitortzeko.

## Auzo elkarteak jaiak antolatzen dituen azken aldia da aurtengoa; ordea, albo batetik bada ere, laguntzen jarraituko dute

### Egitarau herrikoia

Aurten ere, Amara Berriko egitarauak auzotarrak elkartzeko ohiko hitzorduak mantenduko ditu: ostirala (hilak 17), herri dantzen eta sardina jatearen eguna da; larunbatean iritsiko da, ordea, jende gehien biltzen duen jarduera: danborrada. Jarduerarik maitatuenetako bat da azken hori, adin guztietako jende andana biltzen baita, danborrak eta upelak astintzera. Larunbatean, gainera, aspaldiko jarduera bat berreskuratuko dute: zezensuzkoa.

Jendetsuenetarikoa bai, baina umoretsuena dena ziur edukita, auto klasikoaren kontzentrazioa izaten da, urtero, eta hilaren 19an izango da aurten. Auzotik buelta bat emateko auto dotore asko biltzen dira, eta auzokideek aukera hori aprobetxatzen dute pamelak, lumazko lepokoak eta takoiak jantzi eta poteo elegante bati ekiteko. «Autoetan sartzen gara eta barre algara batzuk egiteko aitzakia bikaina izaten da», dio Albusuk, barrez.

Amara Berrik, beraz, badaki bere izaera herrikoia eusten. Jaiak auzoaren bizitzaren parte dira eta, Albusuk dioen moduan: «Euskaldunok festarik gabe... ez dakigu!». Aurten ere, umorea, jai giroa —herrikoia den hori—, musika eta xanpaina ez dira faltako. ●

### Irutxuloko Hitza



## OSTEGUNA 16

### Ordua zehaztu gabe

Kalejira-omenaldia auzoko arrantzaleei, Soinu Alai trikitilariek lagunduta.

## OSTIRALA 17

### 17:00

Erraldoiak eta buruhandiak, Gregorio Ordoñez kalean eta auzoko hainbat kaleetatik.

### 18:30

Herri dantza, Gregorio Ordoñez kalean.

### 19:30

Sardina jate herrikoia, Gregorio Ordoñez kalean.

## LARUNBATA 18

### 09:00

Diana Donostiako Udalaren Txistulari Bandarekin.

### 11:00

Aurpegi margotzea eta haur jolasak, Gregorio Ordoñez kalean.

### 12:00

Zirka Zirkusen *Marietak Zirkus* ikuskizuna, Gregorio Ordoñez kalean.

Bote eta toka txapelketa, Gregorio Ordoñez kalean.

### 18:00

Karmengo danborrada, auzoko kaleetatik.

### 22:30

Disko festa, Gregorio Ordoñez kalean: ETO DJ-a.

Zezensuzkoa, Gregorio Ordoñez kalean.

## IGANDEA 19

### Egun osoan zehar

Soinu Alai, auzoko hainbat kaleetatik.

### 10:30

Auto klasikoaren elkarretaratzea, Gregorio Ordoñez kalean.

### 11:45

Auto klasikoaren ibilbidea, Amara Berriko kaleetatik.

### 12:45

Poteo elegantea txarangarekin, Gregorio Ordoñez kalean.

### 13:00

Aperitiboa Eibar plazan, Mamelena elkarteak eskainita.

Aperitiboa Azkoitia plazan, Urtoki elkarteak eskainita.

### 19:00

Jaien amaiera Gregorio Ordoñez kalean, Lurrin Taldea eta Bom Bo Clat taldeen emanaldiarekin.